

2. UDAL AURREKONTUA. DOKUMENTAZIOA
PRESUPUESTO MUNICIPAL. DOCUMENTACIÓN

2.7. Aurrekontuak Genero Ikuspegiarekin
Presupuestos con Enfoque de Género

2. UDAL AURREKONTUA. DOKUMENTAZIOA PRESUPUESTO MUNICIPAL. DOCUMENTACIÓN

2.7. Aurrekontuak Genero Ikuspegiarekin Presupuestos con Enfoque de Género

AURREKONTUAK GENERO IKUSPEGIAREKIN. PRESUPUESTOS CON ENFOQUE DE GÉNERO.

SARRERA

2014ko uztailean Bilboko Udalak Andrazkoen eta Gizonezkoen Arteko Aukera Berdintasunerako IV. Plana onartu zuen. Horrela bete zuen nazioarteko, estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko mailan garatutako tresna juridikoetan ezarritakoa, berdintasuna oinarritzko eskubidea dela aldarrikatzen baitute eta bote publikoei eskatzen baitie berdintasuna eraginkorra izateko zailtasunak kentzeko.

IV. Plana Udalaren Gobernu Planaren estrategiaren testuinguruan garatzen da eta, horrela, ikuspegi komuna, koherentea eta eraginkorra ahalbidetzen du udalaren politika guztietan generoaren arloko desberdintasunak gainditzeko helburuarekin.

IV. Planaren oinarria gaitasunen ikuspegian dago, jarduera publikoaren prozesu gakoan mapa egituratzeko; horietako bakoitzarentzat helburu nagusiak eta operatiboak zehaztuko dira.

Ikuspegia lau gaitasunen inguruan artikulatzen da:

- **Autonomia ekonomikoa:** emakumezkoek sarrerak eta berezko baliabideak sortzeko gaitasuna, lan ordaindua eskuratu duelako eta sarreraren beste iturri batzuk lortu dituelako, gizonezkoekin aukera-berdintasunean.
- **Emakumezkoen ordezkari-tza soziala eta politikoa:** parte hartzeko eta bere ekarpenak ikusgarri egiteko gaitasuna, bizitzaren arlo guztietan.
- **Emakumezkoen segurtasuna:** segurtasun pertsonala eta osasun komunitarioa modu integralean lantzeko gaitasuna, generoaren eta giza eskubideen ikuspegia sartuta.
- **Kontziliazioa eta erantzukidetasuna:** gizartearen eredu berri eta bidezkoa egiteko gaitasuna, oinarrian pertsonen denboren erabilera berdintasunezkoagoa dagoelarik (familiar, lanekoa, pertsonala...).

AURREKONTUAK GENERO IKUSPEGIAREKIN

Bilboko Udalaren aurrekontu orokorra zeharkako tresna nagusia da gobernu planifikatzeko eta kudeatzeko. Udalaren politikaren adierazpen ekonomikoa da eta, testuinguru horretan, ahalegin publikoa eta zehazki alderdi hauek aztertzeko tresna bat da:

- Gastua modu proportzionalean eta egokian banatu den aurreikusitako helburuak lortzeko, gizonezkoentzat nahiz emakumezkoentzat.
- Egindako jarduerak egokiak diren gizonezkoentzat nahiz emakumezkoentzat.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek emaitzak lortzen dituzten.
- Emaitza garrantzitsua den emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat.

INTRODUCCIÓN

En julio de 2014 el Ayuntamiento de Bilbao aprobó el IV Plan municipal para la Igualdad de Mujeres y Hombres, cumpliendo con ello lo establecido en los instrumentos jurídicos que, desarrollados a nivel internacional, estatal, autonómico y local, promulgan la igualdad como un derecho fundamental e instan a los poderes públicos a eliminar las barreras que dificultan que esta igualdad sea efectiva.

El IV Plan articula su despliegue y desarrollo en el contexto de la estrategia del Plan de Gobierno municipal, posibilitando con ello una visión común, coherente y eficiente que facilita la incorporación en todas las políticas municipales del objetivo básico de la superación de las desigualdades de género.

El IV Plan se basa en el enfoque de las capacidades para estructurar el mapa de los procesos clave de la actuación pública, determinando para cada una de ellas objetivos generales y operativos

El enfoque se articula en torno a cuatro capacidades:

- **Autonomía económica:** capacidad de las mujeres para generar ingresos y recursos propios a partir del acceso al trabajo remunerado y a otras fuentes de ingresos en igualdad de condiciones que los hombres.
- **Representación social y política de las mujeres:** capacidad para participar y hacer visibles sus aportaciones a todos los ámbitos de la vida.
- **Seguridad de las mujeres:** capacidad de abordar de manera integral la promoción de la seguridad personal y la salud comunitaria incorporando la perspectiva de género y los derechos humanos.
- **Conciliación y corresponsabilidad:** capacidad para construir un nuevo modelo social equitativo, que tiene en su base un uso más igualitario de los tiempos de las personas, (familiar, laboral, personal...).

PRESUPUESTOS CON PERSPECTIVA DE GÉNERO

El presupuesto General del Ayuntamiento de Bilbao es el instrumento transversal por excelencia para la planificación y gestión de gobierno. Supone la expresión económica de la política municipal y en este contexto, una herramienta de análisis del esfuerzo público para analizar aspectos como:

- si el gasto ha sido distribuido proporcionalmente y de forma adecuada para lograr los objetivos esperados tanto para hombres como para mujeres,
- si las actividades desarrolladas son adecuadas tanto para hombres como para mujeres,
- si tanto hombres como mujeres consiguen resultados,
- si el impacto resultante es relevante tanto para mujeres como para hombres

2. UDAL AURREKONTUA. DOKUMENTAZIOA PRESUPUESTO MUNICIPAL. DOCUMENTACIÓN

2.7. Aurrekontuak Genero Ikuspegiarekin Presupuestos con Enfoque de Género

Analisiaren sistema:

Erabilitako analisiaren sistema Bilboko Udalak azken urteotan hasitako lanaren emaitza eta udal estrategia berdintasun-politikan sistematizatzearen ondorioa da, eta jarduketa-ardatz hauetan egituratzen da:


- Berdintasunerako Planeko helburuak eta adierazleak Udalaren Gobernu Planean sartzea.
- PEPen (aurrekontua betearazteko programak) eta IV. Planaren helburuen eta adierazleen arteko lotura-sistema bat definitzea, gaitasunen ikuspegiaren bitartez.
- Andrazkoen eta Gizonezkoen Arteko Aukera Berdintasunerako IV. Planeko helburuen zeharkako garapena, udalaren gainerako antolaketaren planifikazio estrategikoaren bitartez, erreferentzia berezia eginez plan sektoriale.
- Análisi eta ebaluazio sistema orokorrak eta IV. Planeko jarraipen sistemak lotzea, batez ere eragina neurtzen dutenak.

2015eko AURREKONTUA: OROKORRA

Erabilitako metodologian, urteko aurrekontuak kategoriatan bitan oinarritutako hasierako esleipena aurkezten du:

- “Generiko” kategorian sartzen diren aurrekontu partidak ez daukate, hasiera batean, generoaren arloko garrantzirik.
- “Genero” kategoria, ostera, generoaren arloko garrantzia daukaten aurrekontu partidei ematen zaie.

Grafikoan ikusten den moduan, udalaren aurrekontuaren gero eta ehuneko handiagoak dauka generoaren arloko garrantzia. Horrela, analisiaren aukera handitzen da, bai eta esku-hartzeko aukera ere.



Sistema de análisis:

El sistema de análisis utilizado es el resultado del trabajo emprendido por el Ayuntamiento de Bilbao en los últimos años y fruto de la sistematización de la estrategia municipal en políticas de igualdad, que se articula en los siguientes ejes de intervención:


- incorporación de los objetivos e indicadores del Plan de Igualdad al Plan de Gobierno municipal.
- definición de un sistema de conexión entre los PEPs (programas de ejecución presupuestaria) y los objetivos e indicadores del IV Plan, a través del enfoque de las capacidades.
- desarrollo transversal de los objetivos del IV Plan municipal para la Igualdad de mujeres y hombres a través de la planificación estratégica del resto de la organización municipal, con especial referencia a los planes sectoriales.
- vinculación de los sistemas de análisis y evaluación generales con los sistemas de seguimiento del IV Plan, especialmente en los referentes a las mediciones de impacto

PRESUPUESTO 2015: GENERAL

En la metodología seguida, el presupuesto anual presenta una consignación inicial basada en dos categorías:

- La categoría “genérico” corresponde a aquellas partidas presupuestarias que no tiene, en principio, relevancia al género.
- La categoría “genero”, por el contrario, es asignada a las partidas presupuestarias que tienen relevancia al género.

Como se puede observar en el gráfico, cada vez gana mayor espacio el porcentaje del presupuesto municipal al que se reconoce relevancia en términos de género, posibilitando con ello ampliar el margen de análisis y, en consecuencia, de intervención.




2. UDAL AURREKONTUA. DOKUMENTAZIOA PRESUPUESTO MUNICIPAL. DOCUMENTACIÓN

2.7. Aurrekontuak Genero Ikuspegiarekin Presupuestos con Enfoque de Género


2015eko AURREKONTUA: SAILEN ARABERA

Udalaren sail bakoitzari esleitutakoa aztertzen dugunean, generoaren arloko esleipena denetan igo dela ikusten da



PRESUPUESTO 2015: POR ÁREAS

Al analizar la asignación realizada a cada Área municipal se observa igualmente el aumento que se ha producido en la asignación de género en cada una de ellas



2015eko AURREKONTUA: GAITASUNEN ARABERA

Gaitasunetako bakoitzari lotutako prozesuak:

Emakumezkoen autonomia ekonomikoa:

- Espazio produktibora iristen laguntzen duten udal programak.
- Gizarte arloko larrialdietarako udal programak (laguntzak eta diru-laguntzak).
- Etxebizitza lortzea.

Emakumezkoen ordezkartza sozio-politiko:

- Emakumezkoen elkartegintzaren ahalduntzea.
- Ordezkaritza orekatua sustatzea parte-hartze sozialean.
- Emakumezkoen ordezkartza udalaren antolaketan.

Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea.

- Menpeko pertsonen zainketa errazteko prozesuak.
- Aisialdia, kultura eta kirola.
- Espazioa hobetzea eta mugikortasuna erraztea.
- Kontziazio-neurriak udalaren antolaketan egokitzea.

Emakumezkoen segurtasuna:

- Segurtasuna espazio pribatuan.
- Segurtasuna espazio publikoan.
- Segurtasuna udalaren laneko espazioan.
- Osasun komunitarioa

PRESUPUESTO 2015: POR CAPACIDADES

Procesos asociados a cada una de las capacidades:

Autonomía económica de las mujeres económica de las mujeres:

- Programas municipales dirigidos a fomentar el acceso al espacio productivo
- Programas municipales dirigidos a emergencias sociales (ayudas y subvenciones).
- Acceso a vivienda.

Representación social-política de las mujeres:

- Empoderamiento del movimiento asociativo de mujeres
- Promoción de la representación equilibrada en la participación social
- Representación de las mujeres en la organización municipal

Conciliación de la vida personal, laboral y familiar



- Procesos de apoyo al cuidado de personas dependientes
- Ocio, cultura y deporte
- Mejora del espacio y apoyo a la movilidad
- Adecuación de las medidas de conciliación en la organización municipal

Seguridad de las mujeres:

- Seguridad en el espacio privado
- Seguridad en el espacio público
- Seguridad en el espacio laboral municipal
- Salud comunitaria

**2. UDAL AURREKONTUA. DOKUMENTAZIOA
PRESUPUESTO MUNICIPAL. DOCUMENTACIÓN**

**2.7. Aurrekontuak Genero Ikuspegiarekin
Presupuestos con Enfoque de Género**



Gaitasun eta prozesu bakoitzari esleitutako helburuak Berdintasunerako IV. Planean zehaztutakoak dira eta 2015eko Plan Operatiboa urteko aurrekontuari lotuta dago

Los objetivos asignados a cada capacidad y proceso son los determinados en el IV Plan de Igualdad a cuyo Plan Operativo 2015 queda vinculado el presupuesto anual.

